



ESKOLA AGENDA 21

HELBURUAK

- ❖ Berrikuntza eta hezkuntza-kalitatea lortzen saiatu, gure ikasleak **arazoak konpontzeko gai izateko** eta ikasleak **herritar partehartzaileak izaten** ohitzeko.
- ❖ Eskolan eta herrian dauden gizarte eta ingurumen **arazoak** gure ikasleek **ezagutu ditzatela** eta hobekuntzarako **proposamenak eta alternatibak adostu eta martxan jarri**.
- ❖ **Ikastetxea ingurumen-eta gizartearen aldeko praktika baten eredia bilakatu**.

Ikasturtero gai bat lantzen dugu eta oraingoan **"hondakinak"** gaia lantzen ari gara eta eskolan, etxean eta herrian gai horren inguruan dauden arazoak aztertzen. Aztertu eta gero helburu batzuk finkatuko ditugu eta horiek aurrera eramango ditugu (erosten ikastea, baliabideak ondo erabiltzea, hondakinak gutxitzea, hondakinak berrerabiltzea, gaika biltzea...)

FAMILIAK: ZER EGIN DEZAKEZUE?

ETXEAN:

- ❖ Material, informazio eta beste hainbat gaiekin lotutako eskakizunei erantzun.
- ❖ Baliabideak aurreztu, hondakinak murriztu, berrerabili, birziklatu.
- ❖ Elkarrekin ikasiz, EA21en lantzen ari diren gaiak familian tratatu.
- ❖ Etxeko lanak eta erantzukizunak partekatu, portaera eredugarri bezala.
- ❖ Publizitatearekiko jarrera kritikoa hartu eta modu arduratsuan kontsumitu.

IKASTETXEAN:

- ❖ Ideiak proposatu, eta iradokizun eta kritikak egin.
- ❖ Proposatzen diren jardueretan parte hartu.
- ❖ Eskolaz kanpoko ingurumen-hezkuntzako jarduerak antolatu.

HERRIAN:

- ❖ Bizikidetzagiro egokia bultzatu.
- ❖ Giza eskubideak, ingurumena eta abar defendatzen dituzten elkarteetako kide eginez.
- ❖ Guztiona dena baloratu, behar bezala erabili eta hobetzen lagundu.
- ❖ Gure kultura eta natura-ondarea errespetatu.